

Eusko Jaurlaritzaren 2020ko aurrekontua

Ezkerrera birarik ez

2019ko azaroaren 28a



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

0. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren 2020rako aurrekontu-proiektua hurrengo ezaugarriak dituen kontestuan aurkezten da:

1. Hazkunde ekonomikoaren erritmoaren murrizketa batekin. Doktrina dominantearen arabera, hori tentsio komertzialek, protekzionismoak eta muga-zergen igoerak, gatazka politikoez eta finantza-merkatuaren zurrunbiloez eragin dute. Hala ere, egiturazko beste arrazoi batzuk ere badaude, hala nola, aurrekontu-politika murriztaileak etengabe aplikatzea, Europar Batasun osoan gertatzen ari den bezala, non Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak ez dira izan eta ez dira salbuespen.
2. Pobrezia areagotzen ari da, noiz eta hazkunde ekonomiko bete-beteko garaian eta enplegua sortzen ari den bitartean. Orobat, desoreka sozialak gero eta handiagoak dira, Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen 2018ko Inkestak egiaztatzen duen bezala. Pobrezia areagotzearen oinarrian hainbat kausa daude, eta aplikatzen diren politika publikoekin loturik daude kausa horiek guztiak (lansari eta pentsioen erosahalmena murriztea, lan-prekarietate gero eta handiagoa, langabezia-tasa atua, langabezia-prestazioen estaldura gero eta urriagoa edota gizarte-prestazioetan egin diren murrizketak).
3. Kapital-errenten aldeko aberastasunaren banaketa desorekatua gero eta nabarmenagoa da. Eros ahalmenaren galerak langile klaseari osotasunean eragin dio, baina, batez ere, diru-sarrera txikiak dituzten pertsonei eragin die gehien. Horren faktoreetako bat enplegu duinaren gabezia da; izan ere, krisia hasi zen urtearekin alderatuz, lanean ari ziren pertsonen kopurua ez berreskuratzeaz gain, sortu den enplegua prekarioa eta aldi baterakoa izan da azken urteetan, enplegu hori zerbitzuen sektorean kontzentratuz.
4. EAEn desindustrializazio-prozesu batekin aurkitzen gara, nahiz eta duela lau hamarkadatik gertatzen ari den prozesua izan, azken urteetan areagotu egin da fenomeno hau. Eusko Jaurlaritzak industria indartsu baten alde egiten duela dio, industria-sektorean okupatutako pertsonen helburua %25ean kokatuz. Errealitatea, ordea, ehuneko horretatik urrun dago, INEren azken datuek erakusten dutenez, gaur egun sektore horretako portzentaia %22,6an kokatzen da eta jaisten ari da. Horrek erantzukizun zuzena du, Eusko Jaurlaritzaren politika industrial hutsala. Horren adibide dira sektore estrategikoen pribatizazioan izan duen jokaera edo Kutxabanken bankarizazioa.

Testuinguru horretan, hainbat ahotsek beste atzeraldi bat iragartzen dute. Teorian, adostasun zabala dago aurrekontu-politiken funtsezko aldaketa beharrezkoa dela esatean, gastu publikoa nabarmen handituz. Hala ere, teoriatik praktikara sabai handia dago, Eusko Jaurlaritzaren 2020rako aurrekontuen proiektua aztertzean egiaztatzen den bezala.

1. Fiskalitateari buruzko eztabaida beharrezkoa da

EAEko 2020ko aurrekontuen eztabaidari begira, Eusko Jaurlaritzak erabatean uko egin dio zergei buruz hitz egiteari, horrek aurrekontuekin zerikusirik ez duela argudiatuz. Ez da egia. Diru-sarrerak erabakigarriak dira Aurrekontuen Legearen edozein proiektu aztertzeke orduan.

Lehenik eta behin, gogoratu behar da, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legea zentzu hertsian betez, Eusko Jaurlaritzaren gastu ez finantzarioa ezin dela hazi 2020an %2,8 baino gehiago (gastu-araua delakoa), zerga-bilketa handituko duen zerga-erreforma bat ez dagoen bitartean. Horri uko egiteak, beraz, aurrekontua %2,8 eskas hori baino ezin dela hazi onartzea esan nahi du. Gainera, 2018ko aurrekontuaren negoziazioak PPrekin adostutako Sozietate Zergaren beherapen bati lotu zitzaizkion (200 milioi eurotan zenbatua), eta horrekin aurrekari argia dago. Agerikoa da aurrekontuen eta diru sarreraren arteko lotura.

Zerga-politikari buruzko testuingurua aztertuta, ELAk uste du 2020ko Aurrekontuen Legearen proiektua kapitalari mesede egiten dion eta ziklo ekonomikoaren eta zorpetze-premiaren menpe uzten gaituen zerga-politika batean oinarrituta dagoela. Horregatik ezinbestekoa da bilketa maila handiagoa. Horren erakusgarri da EAEko presio fiskala (BPGaren%32,5) Europar Batasuneko batez bestekoa (%39) baino askoz txikiagoa dela. Hori soldatapekoak ez diren errentetan dagoen zerga-iruzurra dela eta ematen da, eta errenta altuek, enpresek eta kapitalak ordaintzen dituzten zergak murriztu izanagatik azken hamarkadetan onartutako zerga-erreformen bidez. Presio fiskala Europako batez bestekoarekin parekatzeke, urtean biltzen dena baino ia 4.800 milioi gehiago bildu beharko lirateke.

ELAren ustez, fiskalitateari buruzko eztabaida mahai gainean dagoen testuinguru honetan, inoiz baino premiazkoagoa da gai horri heltzea. Bi aukera daude, elkarren artean kontraesankorrak direnak.

- a) Lehenengoa, gehien dutenei zergak murrizten dizkien zerga-erreforma bat, Foru-Ogasunen diru-sarrerak murriztea ekarriko lukeena. Hori ez da gauza berria, Sozietateen gaineko Zergan jada egin zen. Orain, aldiz, beste urrats bat egin nahi da Ondare Zerga edo Oinordetza Zerga ezabatzeko proposamenaren bidez, Unai Rementeriak eta Ramiro Gonzalezek mahai gainean jarri dutena, eta Pedro Aspiazu Ogasun sailburuak abalatu duena. 2018an, EAEn 317 milioi euro bildu ziren zerga horiengatik (185 euro Ondare edo Fortuna Handiengatik eta 132 milioi euro Oinordetza eta Dohainengatik). Beraz, zerga horiek kentzeak murrizketa erantsiak ekarriko lituzke aurrekontuan ere.
- b) Eta bigarrena, zerga erreforma bat, EAJko buruzagi horiek eskatzen dutenaren kontrako norabidean. Beharrezkoa da gehien dutenek, enpresek eta kapitalak, ekarpen handiagoa egitea Foru-Ogasunein. Horrela, gizarte beharrak asetzeko eta desberdintasunak

murrizteko baliabide nahikoak izatea ahalbidetuko luke. Hala, sektore publikoak rol garrantzitsuagoa izango luke ekonomian, eta horrek esan nahi du aberastasuna modu justuagoan birbanatzea eta ekoizpen-eredu egokiago baten alde egitea, beharrezkoa den trantsizio sozial eta ekologikoarekin.

2. Administrazioen superabitak aurreikuspenak gainditzen ditu

2018an gertatu zen bezala, 2019an EAEko Ogasunen diru-bilketa erreala aurreikuspenak gainditzen ari da. Zerga itunduen bilketaren itxiera-aurreikuspenak 15.386,1 milioi eurokoak dira aurten, 2019rako aurrekontuan aurreikusitakoa baino 120,7 milioi gehiago (+%0,8) eta 2018an baino 404,5 milioi gehiago (+% 2,7). 2020rako aurreikuspenen arabera, 381 milioi gehiago izango dira (+% 2,5) 2019ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta.

Foru-aldundietako diru-sarrerak (milakotan)

2017	2018	Aurreikuspena 2019	Aurreikuspena 2020
14.473.928	14.981.545	15.386.060	15.767.782

Iturria: Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua

Ogasunen bilketa osotik, %70 Eusko Jaurlaritzara bideratzen da. Foru-ogasunetatik eratorritako kopurua hori Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren %89 suposatzen du, gainerakoa beste erakunde-baliabide batzuek osatzen dute (%1,9), zerga propioek eta bestelako baliabideek (%1,6) eta zor publikoak (%7,5).

Eusko Jaurlaritzak 373,5 milioiko superabitarekin itxi zuen 2018ko ekitaldia; 440,7 milioiko superabita izan zuen 2017an. 2017ko eta 2018ko hasierako aurrekontuek superabita aurreikusten ez zuten arren gertatu zen hori. 2019rako aurreikuspenak bide beretik jarraitzen du.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren gauzatzea (milioietan)

	2017	2018
Sarrerak	11.264,5	11.691,0
Gastuak	10.823,7	11.317,5
Superabita	440,7	373,5

Iturria: Eustat

Hau da, azken urteetan superabita modu sistematikoan izan duen gobernu baten aurrean gaude, zeinek aurrekontu proiektu "makillatu" batzuk aurkeztu ditu errealitate hori ezkutatzeko.

3. Gastu-araua, aurrekontua handitzeko eragozpen bat

Eusko Jaurlaritzaren 2020rako aurrekontuen proiektuak azken urteetan onartutako aurrekontu murriztaileen bidetik jarraitzen du. Diru-bilketa uste baino gehiago hazi arren, eta exekutiboaren superabita eman arren, aurrekontu-sailak oso gutxi mugitzen dira.

2019ko aurrekontua aztertzean, ELAk nabarmendu zuen orientazio murriztaile hori Gobernuaren aukera esplizitua zela, 2018tik 2020ra bitartean Espainiako gobernuarekin (une hartan Rajoyk agintzen zuen) defizit publikoaren, zor publikoaren eta gastu-arau deiturikoaren mugak adostu baitzituen. Beraz, iaz egiten genuen kritika gaurkotasun osokoa da 2020rako.

2020ko aurrekontuari begira, Eusko Jaurlaritzak honako konpromiso hauek hartu zituen Estatuarekin:

- %0ko defizit publikoa izatea, hau da, aurrekontu-oreka.
- Zor publikoaren maila ez izatea BPGren %13,2 baino handiagoa.
- Gastu konputagarriaren gehikuntza gehienez ere %2,8ra mugatzea termino nominaletan, 2019koaren aldean. Hori da aurretik aipatutako gastu araua. Arau horrek espresuki adierazten duenez, "Aurreikusitakoaren gainetik lortzen diren diru sarrerak zor publikoaren maila murriztera bideratuko dira osorik".

Gastu-arauak, adierazten du diru-bilketaren igoera bat zorra murriztera bideratu behar dela, eta ez behar sozialak finantzatzera. Gastuaren arauarekin hautsi behar da. ELAk hura indargabetzea eskatzen du, baita hura ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunerako Legea ere. Onartezina da, baliabide ekonomikoak eskuragarri egonda, bai zerbitzu publikoak hobetzera, bai gaur egun urratuta dauden eskubideak bermatzera (etxebizitza eskuratzea, adibidez) edo gizarte-prestazioak hobetzera bideratu ezin izatea.

4. 2020ko aurrekontuen proiektua

a) 2020rako aurrekontuko gastua 2019ko itxiera-aurreikuspena baino %2,54 txikiagoa da.

Eusko Jaurlaritzaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuen proiektuan jasotako gastua 11.774 milioi eurokoa da, 2019ko itxiera aurreikuspena baino 306,7 milioi gutxiago. Beraz, aurrekontua %2,54 murriztu da 2019ko datuekin alderatuta. Ekonomiaren dezelerazio testuinguru batean, eta are gehiago kontu publikoak superabit handiarekin ixten direnean, guztiz kaltegarria da gastu publikoa murriztea.

Aurrekontu-zuzkidura handiena duen saila Osasuna da (guztizkoaren %33,5), ondoren Hezkuntza (gastu osoaren %24,8), gero Enplegua eta Gizarte Politikak (guztizkoaren % 8,8) eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura (guztizkoaren %8,2).

2020ko aurrekontu-proiektua eta 2019ko itxiera-aurreikuspena.

Iturria: Eusko Jaurlaritza

b) Murrizketak azken hamar urteetan: Jaurlaritzak ekonomian duen funtzioen pisuaren murrizketa

Esan bezala, 2020rako, Eusko Jaurlaritzak egindako aurrekontuak 11.774 milioi euroko gastua aurreikusten du. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren benetako ahalmen ekonomikoa aztertu ahal izateko, aurrekontua bi partida deskontatuz aztertu behar da: zorra ordaintzera bideratutakoak (929,8 milioi) eta Espainiako Gobernuak geroago itzuli behar dituen obren aurrerapenari dagozkionak (100,5 milioi AHTarentzat eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearentzat).

Horrela, 2020an Eusko Jaurlaritzak 10.743,7 milioi euro izango ditu bere sailentzat. Horrek esan nahi du 258,75 milioi gehiago izango direla 2019ko itxiera aurreikuspenarekin alderatuta.


Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu proiektua AHTrik eta zor publikorik gabe(milioietan)

	2020
Aurrekontu totala	11.774,0
Adelanto TAV	-100,5
Zor publikoa	-929,8
Total sin TAV ni deuda pública	10.743,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Azken urte hauetan gertatutakoaren larritasuna bere gordintasun guztiarekin ikusten da Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen pisua aztertzen badugu, edo, beste modu baten esanda, EAEn sortutako errentaren zein zati bideratzen den Osasun, Hezkuntza eta abarren funtzioak betetzera. Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen pisua izugarri murriztu da azken urteetan. Eusko Jaurlaritzaren funtzioak ordaintzera bideratzen den aberastasunaren zatia, 2009an %15,6 izatetik 2020an BPGren %13 baino ez izatera igaroko da.

Gastuaren bilakaera, AHTa eta zor publikoa deskontatu ondoren (BPGren%). EAE 2009-2020




Iturria: Eusko Jaurlaritza

Beste era batera esanda, Eusko Jaurlaritzak 2020an bere sail desberdinetara 2009an bideratzen zuen aberastasunaren zati bera bideratuko balu, sail guztietarako aurrekontuak benetan bideratuko direnak baino 2.135,2 milioi gehiago bideratu beharko lituzke.

c) Zor publikoaren ordainketa aurrekontuaren %13ra iristen da 2019an, eta lehentasunezkoa izaten jarraitzen du

Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak zorra ordaintzeko 2020rako 2019ko itxiera-aurreikuspenean baino diru gutxiago aurreikusi, partida hori 2020rako altuenetakoa izaten jarraitzen du. Zehazki, 2020ko ekitaldian partida horretarako aurrekontuan 929,7 milioi euroko gastua egingo da (714,3 milioi euro aurreko ekitaldietan jasotako zorra amortizatzen erabiliko dira, eta 215,4 milioi, berriz, interesak ordaintzeko).

Zor publikoko gastuaren bilakaera eta zor publikoaren pisua aurrekontuan. EAE 2009-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritza

Gainera, kontuan hartu behar da azken urteetan zorraren ordainketa sistematikoki aurrekontuetan jasotakoa baino handiagoa izaten ari dela. 2019ko itxiera-aurreikuspena hasierako aurrekontuarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu zor publikoa ordaintzeko partida 160,5 milioi (+% 11,38) handitu dela 2019an, 1.570 milioira heldu arte. Hau da, Eusko Jaurlaritzak 100 eurotik 13 zor publikoa ordaintzera bideratu zuen. Beraz, hori 2020an ere gertatzea espero daiteke.

Hasierako aurrekontua eta azken gastua edo zor publikoa ixteko aurreikuspena.

	Hasierako aurrek.	Ixteko aurreikuspena	Diferentzia
2018	1.346,77	1.394,72	47,94
2019	1.409,81	1.570,29	160,48

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Beste partida batzuek zuzkidurak murriztu dituzten bitartean, zorra ordaintzera bideratu den kopurua nabarmen handitu da, eta, era horretan, lehentasun osoa eman zaio ordainketa horri, honela beste edozein gizarte-premiaren aurretik jarri da.

d) Osasun arloko gastua murriztu egin da 2019ko datuekin alderatuta

Osasun Sailak 3.941,46 milioi euroko aurrekontua izango du 2020rako, hau da, 73,6 milioi euro gutxiago (-%1,83) 2019ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta. Horrela, Eusko Jaurlaritzak Osasunera bideratzen duen aberastasunaren zatia %4,78ra murriztuko da, 2019an baino 0,27 puntu gutxiago.

2018tik 2019ra Osasunera bideratutako kantitatea 314,9 milioi handitu den arrazoietakoa bat, neurri handi batean, lanbide-garapenari buruzko epaiari dagokio (ELAk jarri zuena). Horrek Osakidetza behartzen du 2011ko deialdiari dagozkion atzerapenak ordaintzera, hau da, 130 milioi euro, dagozkion interesekin.


Osasun arloko gastuaren bilakaera (milioi eurotan). EAE 2018-2020

2018	2019	2020
3.700,24	4.015,11	3.941,46

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Ikuspegi zabalago batetik ikusita, 2009tik gaur egunera eman den bilakaera oso negatiboa da. BPGren pisua murriztu egin da urtetik urtera, 2019an izan ezik, lehen aipatu den arrazoiagatik. 2009an, Barne Produktu Gordinaren %5,39 bideratzen zen osasungintzako gastu publikora (BPGren 0,61 puntu gehiago 2020an baino). Bilakaera negatibo hori zuzentzeko, 2020rako aurrekontuan jasotakoa baino 501,7 milioi gehiago bideratu beharko lirateke Osasun sailera.

Osasun-gastuaren bilakaera (BPGren %). EAE 2009-2020




Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritza

e) Hezkuntzako gastua minimoetan

Hezkuntza Sailarentzat aurreikusitako gastua 2.919,25 milioi eurokoa da, hau da, 5,4 milioi gutxiago 2019ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta.

2009az geroztik, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, nabarmentzekoa da hezkuntzak aberastasunean duen pisuaren beherakada handia, ia puntu batekoa dena. Zehazki, %4,34tik %3,54ra igaro da 2020an. BPGren %3,54tik %4,34ra pasatzeak esan nahiko luke hezkuntzara bideratutako aurrekontua 656,7 milioi euro handitu beharko litzatekeela 2020an.

Hezkuntzako gastuaren bilakaera (BPGren %). EAE 2009-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritza

Hezkuntzako gastua hezkuntza-tartearen arabera aztertuz gero, ikus dezakegu 2020ko aurrekontuan Bigarren Hezkuntzan, Osagarrian eta Lanbide Heziketan jasotako gastua 1.050,82 milioi eurokoa dela (BPGren %1,27), Haur eta Lehen Hezkuntzako 1.019,26 milioi eurokoa (BPGaren %1,24), eta Unibertsitateena 333,94 milioi eurokoa (BPGaren %0,4). Arlo honetara bideratutako baliabide ekonomikoen murrizketak hezkuntza-tarte guztiei eragiten die (Haur eta Lehen Hezkuntza; Bigarren Hezkuntza; Unibertsitatea), hurrengo taulan ikusten den bezala.

Hezkuntzako gastuaren bilakaera, hezkuntza-tartearen arabera. (milioietan) 2018-2020

	2018	2019	2020
Secundaria, Compensatoria, FP	1.039,13	1.120,70	1.050,83
Infantil y primaria	991,02	1.020,54	1.019,30
Universitaria	326,28	335,45	333,94
TOTAL	2.798,94	2.924,68	2919,25

Iturria: Eusko Jaurlaritza


f) Osasun eta Hezkuntzako inbertsio publikoan Europar Batasuneko azken postuetan

Osasunean eta hezkuntzan egindako inbertsioa Europako herrialdeekin konparatzen badugu, agerian geratzen da EAEn bi gai hauetan egiten den gastu publikoa txikia dela. Horretarako eskuragarri dauden azken datuak 2017koak dira.

Hala, osasunean egindako gastu publikoa BPGren %4,9 baino ez zen izan EAEn 2017an, EB-28ko batez bestekoa %7koa izan zen bitartean. Norbegan BPGren %8,5 bideratu zuten horretara. Horregatik, EAE EB-28 osoko azken postuetan dago, eta bost estatu baino ez daude atzetik (Zipre, Letonia, Errumania, Polonia eta Hungaria).

Gastu-diferentzia hori BPGren 2,1 puntukoa da, horrek esan nahiko luke 2020an EAEn aurrekontuan jasotakoak baino 1.832,7 milioi euro gehiago gastatu beharko liratekeela Europak osasunean duen batez bestekoa berdintzeko (3.941,5 milioi euroko aurrekontua egin da). Hau da, ia %50 handitu beharko litzateke egungo aurrekontua.

Gastu publikoa osasunean (BPGren %). EB-28, 2017




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Eurostat

Hezkuntzako gastu publikoari erreparatuz gero, 2017an bideratutako baliabide ekonomikoak EAEko BPGren % 3,8a ziren. EB-28ko batez bestekoa %4,6 zen arlo horretan, eta Islandiak, kasu, %7,5 bideratu zuen hezkuntzara. Hala, EB-28 osoko laugarren posturik okerrenean dago EAE; Bulgaria, Irlanda eta Errumania bakarrik dauzka atzetik.

EB-28ko eta EAEko batez bestekoen artean dagoen BPGren 0,8 puntuko aldea dago, hau da, 659,9 milioi eurokoa da. Hau da, 2020rako hezkuntzako aurrekontua kopuru horretan handitu beharko litzateke Europako batz bestekoa berdintzeko (%23 gehiago).

Gastu publikoa hezkuntzan (BPGren%). EB-28, 2017



Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Eustat, Eurostat

g) Murrizketak gizarte-prestazioetan

Aurrekontu-proiektuak Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) zenbatekoan murrizketa handiak jasotzen jarraitzen du. Beste urte batez, 2008an onartutako legea ez betetzea planteatzen da; horren arabera, DBE gutxienerako soldataren % 86koa izan behar da, pentsiodunentzat izan ezik, kasu horretan legeak DBE gutxienerako soldataren % 100ean finkatzen baitu.

2019an DBE orokorraren zenbatekoa 667 eurokoa da, 2008ko legea betez gero legokiokkeenaren % 27 gutxiago (903 euro). Gainera, aurrekontu-proiektuak murrizketak areagotzen ditu. Izan ere, prestazioaren zenbatekoa %2a handitzea proposatzen du, eta aurrekusten den bezala gutxienerako soldata %2a baino gehiago hazten bada, are larriagoa izango da murrizketa. Gainera, prestazioak banaka aztertuz gero honako hau ikusi daiteke:

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL) aurrekontua 27,5 milioi eurokoa da, aurreko urteko berbera.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak oraindik ez dira eskubide bat, eta, beraz, horretarako jasotako aurrekontua amaitzen denean, hartzaileak prestaziorik gabe geratzen dira, Jaurlaritzak arlo horretarako aurrekontua zabaltzen ez badu behintzat.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako (DBE) 370 milioi euro bideratuko dira, 2019ko aurrekontu proiektuan baino 17 milioi euro gutxiago.
- Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta etxebizitzako eskubide subjektiboari lotutako prestazio ekonomikoak (EPE) 84,5 milioi euroz hornitu dira, 2019ko proiektuan baino 1,5 milioi euro gutxiago, eta 2018koaren oso antzeko kopurua. Hori bereziki kezkarria da, etxebizitza bat alokatu ahal izateko zailtasunak nabarmen okertu direnean.

h) Nahiz eta beharrianak hazi diren, etxebizitzan inbertsio txikitu da

2020ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan Etxebizitzarako aurrekontua 150,6 milioi eurokoa da, 2019an baino 3 milioi euro gutxiago, eta 2018an baino 2 milioi gutxiago. Gogoratu behar da 2009an partida horretara bideratutako aurrekontua 217,4 milioi euro izan zela.

Etxebizitzako gastu publikoaren pisua BPGren %0,18koa da, 2019an baino 0,01 puntu gutxiago. Hala, 2010ean sail horrek izan zuen pisuari eusteko, 19,3 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke, eta 2009ko gastuari eusteko, 67,1 milioi euro gehiago.

Etxebizitzarako aurrekontua (milioietan). 2018-2020

2018	2019	2020
152,5	153,5	150,6
%0,2	%0,19	%0,18

Iturria: Eusko Jaurlaritzza

i) Prekarietatearen aurka borrokatzeko enplegu plan eraginkorrik ez

Lan eta Justizia Sailaren helburu teorikoetako bat sortzen den enpleguaren kalitatea ona izatea da. Helburu hau aurtengo aurrekontuen proiektuaren memorian berriro aipatzen da, baina ezer zehaztu gabe, izan ere, 2020rako planteatzen dena iazko ekintza-sorta ia bera baita.

Enpleguaren sustapenera, hau da, enplegu-politika aktiboetara, bideratzen den aurrekontua 390,2 milioi euro dira, eta horietatik 145,6 Gizarte Segurantzaren kuotetan hobariak egitera bideratzen dira, enplegua sustatzeko eta sortzeko neurrietan hain zuzen.

Enplegu-politika horiek ez dira inola ere eraginkorrak. Alde batetik, bistakoa da gizarte-kotizazioetako hobariak enplegurik sortzen ez duten enpresei diru-laguntzak ematea besterik ez dela. Bestetik, atal horiek gehiago dira izen borobilen bilduma bat, dagozkien aurrekontu egokiak dituzten politika eraginkorrak baino.

j) Aurrekontu feministak dira, eta klima aldatetaren aurka borrokatzen direnak?

Eusko Jaurlaritzak 2020ko aurrekontu proiektuaren bi alderdi nabarmendu nahi izan ditu: genero ikuspegia eta euskadi jasangarria, aurreko urteekin alderatuta norabide aldaketa bat eman dela ulertzera eman dezakeena.

Orain arte adierazitakoa ikusita, argi dago 2020ko aurrekontu-proiektua kontinuitate hutsa dela, aurrekontu-partidetan eta politiken orientazioan egindako aldaketak oso txikiak dira, eta, beraz, ezin da zenbakiekin defendatu aurrekontu feministagoak edo klima-aldaketaren aurka borrokatzea bideratuak daudela.

Genero-ikuspegitik, aurrekontu-proiektuak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak betikotzen ditu; izan ere, emakume horiek jasaten dituztelako neurri handiengan gizarite-babeseke sistemaren eskasiaren ondorioak, zaintza-lanak beren gain hartu behar izanez (adibidez, mendekotasun-sistemen gabeziengatik, osasun-sistemaren arazoengatik, etab. larriagotzen direnak). Era berean, emakumeek gizonen baino pobrezia handiagoa jasaten dute, eta, beraz, gizarite-prestazioen murrizketetan sakontzeak gehiago eragiten die.

Nolanahi ere, gogora ekarri behar da Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-proiektu hau egiteko jarraibide ekonomikoak aurkeztu zituenean jakinarazi zuela, neurri nagusi gisa, sailekin bilerak izango zituztela datuak nola aurkezten zituzten ikusteko (hau da, ez aurrekontua handitzeko, baizik eta beste modu batean aurkezteko).

Azkenik, generoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ez du zehaztu aurrekontuak zetan datzan, ezta ustezko partida horietan igoerarik izan den ere.

Klima-aldaketaren aurkako borrokari dagokionez, sail guztien artean egiten den ahalegin ekonomikoa kuantifikatu dute; hala, aurrekontu-proiektuaren gakoan txostenean nabarmentzen da lortutako zenbatekoa 540 milioi euro dela.

Aitzitik, datuei erreparatzean, errealitatea beste bat da, guztiz desberdina, alegia. Txostenean honako sail hauek jasotzen dira: ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak (376,3 milioi), Hezkuntza (6,4 milioi), Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza, Ogasuna eta Ekonomia, Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Gobernantza Publikoa eta autogobernua, Turismoa eta Merkataritza.

Guztira 510 milioi dira. Hasteko, bi zifra desberdinak dira; banakatzean ikusten dugu 30 milioi gutxiago daudela ekonomia jasangarria deiturikora bideratuta. Gainera, ia kasu guztietan aurreko urteetako partida berberak dira. Baina, aurrekontu-partiden arabera desglosea aztertuz gero, ikusten dugu klima-aldaketaren aurkako borrokaekin zerikusirik ez duten kontu-sail asko sartzen direla, hala nola, AHTari eta Hego Trenbide Saihesbideari bideratutako 100,5 milioi euroak. Eta ekintza arruntak diren beste gastu batzuk (Hezkuntzako eraikinetako obrak,...) edo bestelakoak direnak (horren adibide da Erandioko Axpe industrialdeko Laderaren egonkortzea).

Beraz, argi geratu da 2020ko aurrekontuen proiektua ez dela ez feminista ez klima aldaketaren aurkako borrokaren aldekoa.

5. Ondorioak

Genero ikuspegia txertatua izateagatik eta klima-aldaketaren ikuspegitik jasagarriak izan behar omen zuen aurrekontu proiektua, propaganda hutsa da. Eusko Jaurlaritzaren 2020rako aurrekontuen proiektuari egindako azterketaren ondoren, ondoriozta dezakegu aurreko urteetako ildo berdina jarraitzen duela, eta Exekutiboak proposatzen zuen aldaketa ez dela inola ere islatzen aztertutako partidetan. Proiektu honek are gehiago sakontzen du logika neoliberal eta antisozialean, kapitalari mesede egiten dion zerga-politika batean oinarrituta baitago, ziklo ekonomikoaren eta zorpetze-premiaren menpe uzten gaituelarik.

Aurrekontuetatik nabarmendu ditzakegun alderdi nagusiak hauek dira:

- Guztira, 11.774 milioi euroko aurrekontua du Jaurlaritzak, 2019ko itxiera aurreikuspena baino 306,7 milioi gutxiago. Beraz, aurrekontua %2,54 murriztu da 2019ko datuekin alderatuta.
- Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen pisua izugarri murriztu da azken urteotan. Eusko Jaurlaritzaren berezko funtzioak ordaintzera bideratzen den aberastasunaren zatia 2009an BPGren %15,6 izatetik 2020an %13 izatera pasako da.
- Osasunera eta Hezkuntzara bideratutako gastu publikoaren pisua gero eta txikiagoa da. Europako azken postuetan gaude gai horietara bideratzen den aberastasunaren zatiari dagokionez. Europako batez bestekoarekin parekatzeko, 2020ko aurrekontua ia %50 hazi egin beharko litzateke osasunean, eta ia laurden bat hazi Hezkuntzan.
- Aurrekontu-proiektuak DBEaren zenbatekoan murrizketa handiak jasotzen jarraitzen du, bai eta etxebizitza-politiketara aurrekontu guztiz eskasa ere.

Desazelerazio ekonomikoaren egoerari aurre egiteko sektore publikoa funtsezkoa dela aitortzeko garaian,

erabateko adostasuna dago. Politika hauen funtsezko aldaketa bat beharrezkoa da, aurrekontu-politikak eta zerga-politikak aldatuz. Baina Eusko Jaurlaritzak errealitate hori alde batera utzi du aurrekontu proiektu honetan, eta gizarte-beharrei erantzuteko balio ez duen aurrekontu-proiektu bat aurkeztea erabaki du. Are larriagoa da politika hau dagoeneko bizi dugun dezelerazio ekonomikoaren aurrean.

Gauden errealitatea errotik eraldatu nahi dugun erakunde sindikal, sozial eta politikoen aurrekontu hauen aurka gaudela erakutsi behar dugu, haien izaera antisozial eta neoliberala azpimarratuz. Era berean, gure alternatibak mahai gainean jarri eta gizartea mobilizatu behar dugu, urtarilaren 30eko greba orokorrari begira aurkeztu dugun Aldarrikapen taularekin egiten ari garen bezala.

Horren ordez, badaude gobernuaren ideologia eta aurrekontu esparrua onartzen duten indar politikoak (Podemosen aurtengo kasua dirudi) zerga-erreforma baten bidez baliabide gehiago lortzeari uko egiten diotenak, zorra ordaintzeari lehentasuna emanez, Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Legearen aurrekontu-mugak ezartzea onetsiz, hala nola gastu-araua, etab. Alderdi hauek aurrekontuetan zati txiki batean soilik izango dute esku-hartze eta erabakitze ahalmena. Honek aurrekontuaren esentzia bere horretan mantentzea suposatzen du. Horrela jokatzek sistemak asimilatzea dakar.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA